

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Behin betiko onespena ematea Gasteizko "Ekialdeko 3. zabalpena-Salburuko parkea" 15. sektoreko plan partzialaren bosgarren xedapen aldaketari**

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2017ko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: behin betiko onespena ematea Gasteizko "Ekialdeko 3. zabalpena-Salburuko parkea" 15. sektoreko plan partzialaren bosgarren xedapen aldaketari.

#### Erabaki-proposamena

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "Ekialdeko 3. zabalpena- Salburuko parkea" 15. sektoreko plan partzialaren bosgarren xedapen aldakuntzarako proiektua ikusi da, zein E-4 enklabe erabilera erregimenari buruzkoa baita. Proiektua B. K. H., SLUren ordezkariak aurkeztu zuen 2017ko urtarrilean.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Berrikuspenaren Testu Bateginak xedatzen ditu "Ekialdeko 3. zabalpena- Salburuko parkea" 15. sektorea garatzeko baldintzak, dagokion eremu-fitxaren bidez.

"Ekialdeko 3. zabalpena-Salburuko parkea" 15. sektoreko plan partzialaren behin betiko onespena 2001ko maiatzaren 18ko ALHAOn argitaratu zen. Plan partzialak lau aldakuntza izan ditu: lehena 2004ko apirilaren 26ko ALHAOn argitaratu zen; bigarrena, 2005eko martxoaren 21ean; hirugarrena, 2006ko abuztuaren 16an, eta laugarrena, 2009ko uztailaren 15ean.

"Ekialdeko 3. zabalpena- Salburuko parkea" 15. sektoreko plan partzialaren bosgarren xedapen aldakuntzaren xedea da hirigintza arauen 5.7.2.4 artikuluko (Irabazizko aprobetxamendua duen enklabearen fitxa, E4) erregimen erabilera, erabilera bateragarriak gehitzea kirol erabilera bereizgarriari hain zuzen ere, hezkuntza, osasun, kultura eta ikuskizun ekipamenduen erabilera.

Zehazki, plan partzialaren hirigintza-arauen 5.7.2.4 puntuko erabilera-erregimena aldatzea proposatzen da, eta hemen jasotzen da, aldaketa letra lodiz adierazita:

"5.7.2.4. Irabazizko aprobetxamendua duen enklabearen fitxa, E4

(...)

#### Erabilera-erregimena

Bateragarriak izango dira Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko erabilera partikularren arauetan (erabilera tertziarioa, 3. sekzioa) zehaztutako erabilera guztiak.

Erabilera bereizgarria kirol-ekipamendua bada, eraikin beraren barruan erabilera horrekin bateragarriak izango dira hezkuntza, osasun, kultura eta ikuskizun arloetako ekipamenduetarako erabilerak.

Gainerako erabilerak debekatuta egongo dira"

Aurkeztutako proiektuan zehaztu dira aldaketaren ekimena, erredaktorea, xedea eta irismena, hirigintza-aurrekariak, lege-oinarria, aldaketaren justifikazioa, indarrean dagoen plan partzialaren dokumentazio aldatua, proposatutako antolakuntzaren ingurumen-baldintzak, aldatuko den hirigintza-araua eta arau aldatua.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko ekainaren 16an egindako ohiko bilkuran hasierako onespina eman zion Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko “Ekialdeko 3. zabalpena-Salburuko parkea” 15. Sektorako Plan Partzialaren bosgarren xedapen aldaketaren proiektuari, zein E-4 enklabearen erabilerean erregimenari buruzkoa baita, eta jendaurrean jarri zen.

Erabaki hura 2017ko uztailearen 14ko ALHAOn (80. zk.) argitaratu zen, bai eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan ere, 2017ko uztailearen 7an, plan partzialaren xedapen aldaketa hori jendaurrean jartze aldera, horrek eragiten ziola uste zuen orok aztertzerik izan zezan, baita egokitze zituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere, eta horretarako ezarritako epean ez da batere alegaziorik aurkeztu.

2017ko ekainaren 28ko EHAAn, (122. zk.), Ingurumen Administrazioaren Zuzendariak 2017ko ekainean emandako ebazpena argitaratu zen, non Gasteizko “Ekialdeko 3. zabalpena- Salburuko parkea” 15. sektorako plan partzialaren bosgarren xedapen-aldaketaren ingurumen-txosten estrategikoa jaso zen, eta han zehazten da, ez dela aurreikusten ingurumenaren gaineko eragin azpimarragarriarik, beti ere proposatutako erabilera bateragarrien erregimenaren handitze hori eraikinaren barrura mugatzen bada, eta horrenbestez ez dela beharrezko ingurumen-ebaluazio arrunta egitea.

Legebiltzarraren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 67. eta 68. artikuluek arautzen dituzte plan partzialen eremua eta edukia, bai eta zein agiritan formalizatu behar diren ere.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95. eta 96. artikuluetan xedatzen da plan partzialak izapidetzeko eta onesteko araudia.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen berrikuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili behar da, eta, gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili behar da.

Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespina ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak —Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurri buruzko 57/2003 Legeak osatua— 123.1.i artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Proposatzen den antolamenduarekin bat etorri —dosierreko hirigintza-agirietan justifikaturik dago horren komenigarritasuna eta egokitasuna— eta aipatu diren araudiak aintzat harturik, Hirigintza Batzorde honek, Toki Jaurbidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legeak —abenduen 16ko Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurri buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4.a) artikuluan aitortzen dizkion eskumenak baliaturik, eta Tokiko Gobernu Batzarrak hala proposaturik, erabaki proposamen hau egiten dio Udalbatzari:

#### Erabakia

1. Behin betiko onespina ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko “Ekialdeko 3. zabalpena- Salburuko parkea” 15. sektorako plan partzialaren bosgarren xedapen aldakuntzari, zein E-4 enklabearen erabilerean erregimenari buruzkoa baita. Proiektua B. K. H., SLUren ordezkariak aurkeztu zuen 2017ko urtarrilean.

2. Erabakia, zeinak administrazio-bideari amaiera ematen baitio, argitaratzea. Haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Gorenaren aurrean, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 6an

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**